



Erronka:

Nola hobetu genitzake BFAk kontratatutako aseguru (poliza) bati lotuta egon daitezkeen gorabeherak gertatzen diren sailetatik datorren komunikazioa eta informazioa?

Azpierronkak:

- Nola jaso genezake informazioa **ikuspegi integral** batekin?
- Nola egituratu dezakegu **hainbat kanaletatik datorren informazioa**?
- Nola zaindu dezakegu **komunikazioen eta erabiltzaile eta sail desberdinek** (baimen/rol desberdinekin) egindako datu/aldaketen **trazabilitate ordenatua**?
- Nola erraztuko genuke komunikazioen eta aurrez bildutako eta egituratutako **informazioaren edukia bilatzea**?

Testuingurua:

Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Aseguruen Atala (aurrerantzean, BFA) atxikita dagoen Ondare Zerbitzuak, bere eginkizunen artean, BFAREN aseguruak kudeatzen ditu (erantzukizun zibila, kalteak, etab.) estaldura duten aktiboentzat (eraikinak, ibilgailuak, langileak, etab.). Zehazki, sailen eta aseguru-bitartekariaren arteko bitartekari-funtzioa betetzen du, besteak beste.

Hori dela eta, bere egunerokoan, BFAk kontratatutako aseguru (poliza) baten estaldurapean egon daitezkeen gertakariak gertatu diren beste sail batzuekin elkarreragiten du sailak. Sail horiek kontsultak egiten dituzte eta informazioa trukatzan dute hainbat kanalen bidez (telefonoa, aseguru-postontzia, langileen e-mailak, etab.) eta etengabe ezbeharra itxi arte.

Lan horretarako, sailak dokumentu-kudeatzaile bat du, eta bertan eskuz sartzen du sailek helarazten duten dokumentazioa. Hala ere, ez dago tresnarik elkarrizketak, haien datak, emandako erantzuna eta abar jasotzeko. Beraz, ez dago sailekiko elkarreraginen trazabilitaterik.

Ondorioz, GovTech programa bide bat izan daiteke, teknologia erabiliz, sailekiko elkarreraginei buruzko informazioa hobetzeko. Horrek aukera emango luke ekipoaren eraginkortasuna



hobetzeko, lan-kargak murrizteko eta informazioaren trazabilitatea ziurtatzeko, bai eta sailekiko komunikazioa hobetzeko ere.

Helburuak:

Aseguru-ekipoa eraginkorragoa izan dadin eta lan-kargak murriztu daitezen, soluzio hauek bilatzen ditugu:

- Sailekiko elkarreraginak modu erraz eta ordenatuan jasotzea
- Sailei informazioa eskatzea, eskaeraren eta emandako dokumentazioaren trazabilitatea gera dadin
- Bildutako informazio/elkarreragin guztiak erraz kontsultatzea eta espedientearen, dataren, sailaren, poliza-tipologiaren eta abarren arabera iragaztea.
- Informazio horren zati bat sailei eta bitartekariari erakustea, sailek jarraipen-informazioa kontsultatu ahal izan dezaten.

Zer nahi dugu?

Alderdi hauek hartuko ditugu kontuan:

- Erronkarako balio argia eta garrantzitsua proposatzea.
- Merkatuan traxioa duen soluzio teknologikoa.
- Integragarria izan behar du egungo sistemekin eta prozesuan inplikatutako alderdi guztiekin.
- Adopziorako eta inplementaziorako erraztasuna.
- Irisgarritasuna eta sinpletasuna: Irtenbide egokia ezagutza digitalen maila desberdinak dituzten pertsonentzat.
- Soluzioaren eskalagarritasuna.

Prozesua eta data garrantzitsuak:

Proposamenaren erantzuna jasotzeko **azken eguna** hau da: **2023/10/31**.

Hautaketa-prozesuak urrats hauek ditu:

- Gehienez 5 enpresa hautagai hautatzea, haien konponbideak planteatutako erronkarekin duen garrantziaren eta bat-etortzearen arabera.
- 5 enprekin elkarrizketak egitea, haien jarduera eta balio diferentziala ezagutzeko.
- 3 enpresa finalista hautatzea.
- 3 finalistek pilotu-proposamena aurkeztea.
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea.

Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko urtarrilean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.



Zer lortuko duzu?

Ordaindutako pilotua, gehienez 15.000 eurokoa.